



## PRENTSA OHARRA

### ADIERAZPEN INSTITUZIONALA 2024ko EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Bat, eta bat, eta bat, eta beste bat... bi, gehi beste bat... gehiketa da gaigintza, txirikordan dabilzan harien ehuna sortzen dugun bat eta bakar kolektiboak. Gaigintza da gehiketa kolektibo txirikordatua. Ehungintzaren artea. Ehundarron mugimendua. Ari eta ari, hariak gurutzatuz bidegurutzetan. Ebakidura eta loturak hari fin edo lodien artean. Gorri, urdin edo zuriak... bat eta bakoitza bere-berea elkarri begira. Korapiloak, elkargune. Bakoitza nor berea, nortasun bat eta bakar. Hari sendo eta ahul. Hari zahar edo berri. Ez deusa bakarrik, eta osoa, batera. Ehun! Guztion artean ehuna!

Ehundegi bat gara, bakartasunak batuz, gurutzatu eta korapilatuz gabiltzan hari luze-laburren ehungile artisauak. Ixte zein irekitze. Korapilo, lotura eta askatzeak. Eskuaren tenkatze eta lasaialdiaren mugimendua gara. Euskararen ehundegia. Garen geroaren ehundegia.

Zaharra da euskararen ehundegia. Hariz hari, hariak eta hariak batuz ekinean aritu izan garen herritar eta euskaltzaleak iragana bezainbat gara oraina. Euskara dugunak bezainbat oraindik ez dutenak. Euskararen aldekotasunak hizkuntza ezberdinak ditu, hiztun mota ezberdinak gara, eta guztiok osatzen dugu euskararen ehuna. Mugimenduan gabiltzanon ehuna.

Euskararen aldeko ekinek ehunka egun eta urtetan iraun dute geldialdirik gabe bidegile eta bidelagun ekintzaileei esker. Euskararen hurrengotaratzearen katebegigileak izan dira. Ezinbestean, euskarak bidegileak behar izan dituelako. Bidelagun nekaezinak, kolektiboa. Ekintza eta taldetasuna osatu duten euskaltzaleak. Ametsa, jolasa eta saretzea egia bihurtu duten talde zein mugimendu eragileak gara ehundegi honetako protagonista nagusiak.

Bat, eta bat... eta beste bat... bi eta bi, eta beste bat. Baina bi edo bat, eta bat. Agian, beste bat. Edo, agian, bat eta erdi bat. Halere, euskarari emanak garen kolektiboaren marrazkia irteten den ehunean, ekina ahultzen ari da. Harien tenkatze eta lasaitzea, mugimendua bakantzen sumatzen dugu mundu globalaren erritmoetan. Ezina. Ekinari eutsi eta eman ezina. Korapilo handi samar bat ehunean kateatuta. Tenkatze lan minbera sortzen duena eskuetan. Multzoaren uztearen ondoriozko hustea. Hutsunea ageri da ehunean. Marrazkiaren zulo txikia. Gizartearen ardura kolektiboa besterentzen ari den unean, taldetasuna eta ekintzailtza gero eta urrunago suertatzen ari zaizkigu, eta ehunean bada zulo bat, bete ezin duguna. Eskua ekinera iristen ez den ez-leku hori agertzen da gure begietan.



Bai. Agertzen da hutsartea euskararen ehunean. Eta gabiltza ekinean hari-gurutzeak osatuz, korapiloak handitu eta lasaituz. Kolorez kolore. Ehundura osatuz. Ilaraz ilara, elkar gurutzatuz. Elkar sendotuz. Euskararen ehun zulatua eder bilakatuz, gertu zein urrutiko begiratuan. Zuloa, hari etena eta nahastura ere bagarelako. Euskararen ehundegian, baina, ekina da jarraipena. Ekina da artez bizirautea. Mugimendu soziala. Erakunde publiko, elkarte, langile eta etxeokak. Euskararen aldeko mugimendua gara. Euskarari emanak eta euskarari esker ekinean nor izan nahi dugunak. Euskararen ehundegia gara. Garen geroaren ehungailu etengabeak.

Euskararen egunean, ehungile garen erakunde publikoei eta gizarte eragileei aupada handi bat zor diegu. Geldialdirik gabeko bidea da euskararen indarberitzearen bizitza, eta ekinean gabiltzanon ardura elkarren aitortza eginez, gure erronka berriei erantzuteko baldintza berriak sortzea.

Gure hirian, asko dugu egun euskararen alde egiteko, Irungo Udalak, erakunde publikoa den heinean, konpromisoa eduki behar du eskubide linguistiko guztiak bermatzeko. Asko ekinaren ekinaz ehuntzeko, gure kaleak gure hizkuntzaren bustidurez betetzeko. Irun ere, euskararen ehundegia izatea nahi dugu.

Euskararen ehuntze ariketa guztion ardura da. Erakunde publikoona eta gizarte eragileona. Ekina ezinbestekoa da. Euskarak mugimendua behar du, bere-berea duen bizia mantendu eta geroz eta biziagoa izateko; euskararen distirak aniztasunetik guztiok ziprztindu gaitzan. Eta Irunen, egunez egun Euskarak bizirik mantentzeko behar duen mugimendua eskaintzeko ahalegina egingo dugu.

Euskara guztiona da. Hemen gauden eta etorriko diren guztiona. Irabaz dezagun elkarrekin euskararen bidea.

Irunen, 2024ko abenduaren 3an



## NOTA DE PRENSA

### DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA 2024

Un hilo, y un hilo, y uno, y otro... dos, otro más... lo importante es la suma, ese tejido individual y, a la vez, colectivo, que conforman todos los hilos trenzados entre sí. Lo realmente importante es la creación colectiva a partir de unos simples hilos. El arte textil. El movimiento de los telares. Anudando hilos en las intersecciones. Cortes y uniones entre hilos finos o gruesos. Rojos, azules o blancos... Mirándose unos a otros. Nudos convertidos en puntos de encuentro. Cada cual con su personalidad. Hilos gruesos compartiendo espacio con hilillos. Hilos viejos junto a otros más jóvenes. La nada, en solitario; el todo, en conjunto. ¡El lienzo! ¡El lienzo tejido por toda una comunidad!

Entre todos formamos un taller de artesanos que, trabajando a veces con hilos cortos y a veces con hilos más largos, respuntamos, remendamos y rematamos nuestras respectivas soledades. Abriendo y cerrando. Zurciendo, hilvanando y descosiendo. Somos el movimiento que estira la mano para relajarla después. El telar del euskera. El telar del futuro de lo que ya somos.

Viejo es el telar del euskera. Quienes amamos nuestra lengua, quienes se han dedicado a tejer hilos y más hilos a lo largo de su vida son tantos ahora como lo eran antes. Algunos sabiendo euskera; otros desconociéndolo. Porque los hilos de otras lenguas también tienen cabida en el tejido del euskera. Nuestro movimiento no ha sido ni será de un solo idioma. La defensa del euskera engloba a diferentes lenguas, a diferentes tipos de hablantes, y todas y todos formamos el mismo tejido. El tejido de quienes estamos en marcha.

Las iniciativas a favor del euskera se han mantenido sin interrupción a lo largo de los años gracias al esfuerzo tenaz de quienes han sido compañeros de viaje. Escritores tanto en euskera como en castellano, como personas creadoras, narradoras, cantantes, defensoras de la lengua... Todos ellos y ellas han sido eslabones de la cadena que constituye el futuro del euskera. La suya ha sido una labor imprescindible, porque el euskera siempre ha necesitado de su presencia. Han sido unos acompañantes incansables. Un verdadero colectivo. Euskaltzales que han estado siempre allí donde había que arrimar el hombro, desde las agrupaciones. Colectivos que, a fuerza de perseverancia, han hecho realidad un sueño, como en un juego, y, en definitiva, se han convertido por méritos propios en los grandes protagonistas de este telar que es el euskera.

Un hilo, y un hilo... y otro... dos y dos, y otro. Pero dos o uno, y uno. A lo mejor, otro. O, tal vez, uno y medio. Sin embargo, en el lienzo tejido por este colectivo que trabaja por el euskera la acción se va debilitando. Como hacemos con los hilos, estiramos y



aflojamos. Y en un mundo tan global el empuje colectivo parece que pierde fuerza. Lo imposible. Como si los hilos formasen de pronto un enorme nudo que enmaraña el tejido. Que cuesta soltar con las manos. Miedo a abandonar el conjunto. Hay un vacío en el tejido. Un pequeño agujero en el dibujo. En un momento en el que la responsabilidad colectiva se aleja, también parece alejarse el activismo, y aparece un agujero en el tejido que no podemos llenar. Ante nuestros ojos se perfila ese no-lugar donde la mano no llega a actuar.

Sí. El tejido del euskera es delicado. Y para mantenerlo cuidado, cruzamos hilos o agrandamos y aflojamos nudos. Color a color. Remendamos la tela. Fila a fila. Entretejiendo. Entrelazando. Convirtiendo el desgarró en algo hermoso, tanto visto de cerca como de lejos. Porque también somos un agujero, un hilo discontinuo y, a la vez, una amalgama. En el telar del euskera, la continuidad pasa por seguir trabajando. La revitalización pasa por seguir trabajando. Movimiento social. Sector público, asociaciones, trabajadores y familiares. Somos acción a favor del euskera. Para el euskera y lo que queremos ser gracias a él. Somos el telar del euskera. Los telares inquebrantables de nuestro futuro.

En este día del euskera, es de justicia reconocer la enorme labor realizada por personas e instituciones que han dedicado sus esfuerzos a tejer el lienzo de nuestra lengua. La revitalización del euskera es un proceso imparable y nuestra responsabilidad, siempre desde el reconocimiento del trabajo llevado a cabo por los demás, pasa por crear las condiciones que permitan responder adecuadamente a los nuevos retos del euskera.

En nuestra ciudad nos queda mucho por hacer a favor del euskera y el Ayuntamiento de Irun, como entidad pública, asume el compromiso de garantizar todos los derechos lingüísticos. Entre todos, tenemos mucha lana para seguir tejiendo, para que los ecos de nuestra lengua sigan sonando en nuestras calles, porque queremos que Irun sea uno de los telares donde se teje el futuro de nuestra lengua.

El ejercicio de tejer el euskera es responsabilidad de todos y todas, tanto de las entidades públicas como de los agentes sociales. Para ello, la acción es imprescindible, ya que el euskera necesita movimiento para mantener su propia vivacidad y para sumar nuevos espacios con dinamismo, de manera que sus sonidos llenen nuestra ciudad de diversidad. Y en Irun nos vamos a esforzar para activar ese movimiento que el euskera necesita día a día para mantenerse vivo.

El euskera es de todos y todas. De quienes ya estamos aquí y de quienes vendrán. Es hora de ganar entre todos y todas el camino del euskera.

Irun, 3 de diciembre de 2024